

NORK
NOIZ
NON
NOLA
ZERGAITIK...

GALDETU



lurgorri

ikasle elkarte

Liburuxka hau, ikasle-araudiaren gaineko azalpenak emateko egin dugu. Ikasle on artean araudi hau oso ezezaguna da eta garrantzitsua iruditu zaigu, era labur batean bada ere, araudiaren atal batzuk zuei azaltzea, ikasle bezala sortzen zaizkigun duda asko horren bidez konpondu daitezkeelako.

Liburuxkan, galdera-erantzun sorta planteatu dugu, ikasleok izan ditzazkegun gatazken aurrean konponbideak aurkitzeko. Orokorrean, sortu daitezkeen gatazka gehienak irakaslearekin hitz eginda konpontzen dira; argudio onak ematen badizkiozu, seguruenik ulertuko dizula.

Baina, batzuetan, konpondu ezinezko arazoak gertatzen dira eta araudira jo beharra dago. Arazoren bat baduzu eta konpondu ezinik bazabiltza, zalantzarik ez izan eta jar zaitez gurekin harremanetan **info@lurgorri.org** e- helbidean. Laguntzen saiatuko gara.

Azkenik eskerrak eman, liburuxka hau egiten lagundu diguzuen guztioi; batetik galderak bidaltzen dizkiguzuenoi eta bestetik orohar liburuxka egiten lagundu diguzuen guztioi.

ARATZ CASTRO
Lurgorri Ikasle Elkartea



Gure erantzunen oinarri diren arautegiak:

- LBZIGA: Lehenengo eta bigarren zikloko ikasketen gestiorako arautegia. (2008/09).
- Iraute-arauak: Ikasleen iraute-arauak.
- Legebiltzarraren eta Eusko Jaurlaritzaren hainbat lege eta agindu.

AURKIBIDEA

ESTEKA INTERESGARRIAK	04
IKASTURTEA HASI AURRETIK JAKIN BEHARREKOAK	05
MATRIKULA	08
IKASTURTE BARRUAN	10
EBALUAKETA SISTEMAK	13
DEIALDIAK	15
AZTERKETA EGUTEGIA	16
AZTERKETAK	18
KALIFIKAZIOAK ARGITARATZEA	19
NOTAK ERREKLAMATZEKO PROZEDURA	20
KONPENTSAZIO EBALUAKETA	22
MUGIKORTASUNERAKO PROGRAMAK	24
BEKAK ETA LAGUNTZAK	25

ESTEKA INTERESGARRIAK

LURGORRI

www.lurgorri.org

EHU

www.ehu.es

EHUko Bizkaiko Kanpus-aren web orrialdea

<http://www.bizkaia.ehu.es>

EHUko Ikasle Errektoretzaordearen web orrialdea

<http://www.ikasleak.ehu.es>

Unibertsitate ikasleentzako beka

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5552/es/contenidos/informacion/dib2/es_2033/b2_c.html

http://www.ikasleak.ehu.es/p001-12872/es/contenidos/enlace/indice_becas_ord_aca/es_indice/indizea.html

Ikaslearentzako araudia

Lehenengo eta bigarren zikloko ikasketen gestiorako arautegia

<http://www.ikasleak.ehu.es/p001-9258/es/>

Ikasleak ikastegian ohi baino denbora luzeagoan geratzeari buruzko araudia

http://www.ikasleak.ehu.es/p001-12872/es/contenidos/normativa/normas_de_permanencia/es_permanen/normas_permanencia_2006_07.html

IKASTURTEA HASI AURRETIK JAKIN BEHARREKOAK

Zer dira kredituak?

Eskola-orduak neurtzeko erabiltzen den unitatea da. Kreditu bat, gaur egun, 10 eskola-orduren pareko da bai irakasgai teorikoetarako bai praktikoetarako, eta jarduera akademikoak ere egon daitezke sartuta ordu horietan.

Idea hori aldatu egiten da unibertsitate-sistema berrian. Sistema horretan, eskola-orduez gain, kontuan hartuko dira ikasleak lanak edo azterketak prestatzen eman beharrekoak.

Zein motatako irakasgaiak izango ditut?

Unibertsitateko ikasketa guztietan irakasgai-mota hauek daude: enborrekoak, nahitaezkoak, hautazkoak eta aukera askekoak. Baina, zertan desberdintzen dira?

Zer dira enborreko irakasgaiak? Eta nahitaezkoak?

Enborreko irakasgaiak dira titulu ofizial bera irakasten duten unibertsitate guztietan ematen diren irakasgaiak. Enborreko irakasgaiak ministerioak zehazten ditu.

Nahitaezko irakasgaiak, berriz, unibertsitate bakoitzak zehazten ditu eta titulu eskuratzeko ikasleek egin beharrezkotzat jotzen dituenak dira. Horrexegatik, desberdinak izan daitezke unibertsitate batetik bestera, ikasleek lortzen duten titulua berbera izan arren.

Zein alde dago hautazkoen eta aukera askekoen artean?

Unibertsitate bakoitzak erabakitzen du ikasleek hautazko zenbat kreditu egin behar dituzten ikasketa-planaren barruan. Aukera askeko kredituak, ordea, ez dira lortzen soilik irakasgaiak gaintututa; beste bide batzuk ere badaude (hitzaldietara joatea, jardunaldietara, boluntario-lanak, hizkuntzak...).

Hautazko irakasgairen bat gainditzen ez baduzu, bi aukera dauzkazu: hurrengo ikasturteko matrícula hartu, eskaintzen bada; edo, egokiago ikusten baduzu, beste bat aukeratu haren ordez (LBZIGA, 21. artikulua). Aukera askeko kredituak irakasgaien bitartez lor ditzakezu baina, gainditzen ez badituzu, gorago aipatu diren bideetara jo dezakezu.

Zer da irakasgaiak baliozkotzea?

Baliozkotzeak esan nahi du ikastegiak ontzat ematen duela zuk aurretik beste ikasketa batean (edo beste unibertsitate batean) egindako irakasgaia eta, ondorioz, ez duzula egin behar berriro.

Irakasgaiak baliozkotzeko eskaera ikastegiko idazkaritzan egin behar duzu, horretarako dauden epeen barruan. Normalean irakasgaietako programak eskatzen dituzte, irakasgaiak baliozkotu daitezkeen ala ez erabakitzeko.

Baliozkotu nahi diren irakasgaiak unibertsitate publikoetakoak badira, baliozkotzea doan da. Aldiz, ikastegi pribatuetan edo atzerrian egin badira, kasuan kasuko zenbatekoaren %25 ordaindu behar da (AGINDUA, 2009ko ekainaren 23koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 2009-2010 ikasturtean unibertsitateko ikasketa-zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezioak finkatzen dituen).

Zer da bigarren zikloa? Zer egin behar da bigarren zikloan sartzeko?

Diplomaturak eta ingeniari-tza teknikoak, besteak beste, hiru urteko ikasketak dira eta, horrexegatik, ziklo bakarrekoak. Baina badira beste ikasketa batzuk (lizentziaturak, goi-mailako ingeniari-tzak eta abar) lau eta bost urtekoak, eta horiek bi ziklotan daude banatuta.

Lehen zikloa behin amaituta, ikasleek aukera daukate beste ikasketa batzuen bigarren zikloan sartzeko zuzenean (UPV/EHUk xedatutako ikasketen bigarren zikloan hain zuzen). Normalean osagarriren bat egin behar da.

Zer da osagarria?

Osagarria da egin behar dituzun irakasgaien multzoa, ziklo bat baliozkotu ahal izateko. Unibertsitateak berak erabakitzen du zeintzuk diren egin beharreko irakasgaiak.

Zer dira zubi-irakasgaiak?

Beste ikasketa batzuetako irakasgaiak dira, ikastegiaren iritziz bertan irakasten diren ikasketetakoekin baliozkotu daitezkeenak

LURGORRI taldeak eskatu diogu ikastegiari esateko zeintzuk diren irakasgai horiek, bertan irakasten diren ikasketei dagokienez.

Beste ikasketa batzuk egiten hasi nahi dut. Zeintzuk dira aukerak?

Bi aukera dauzkazu beste ikasketa batzuk egiten hasteko. Bata da beste ikasketa batzuk egiten hasten zarela aurreko ikasketak amaitu ondoren, edota bertan behera utzi ondoren egiten ari zinenak. Kasu batean zein bestean, gainditutako irakasgaiak baliozkotzeko eskaria egin dezakezu eta, baliozkotzeko aukerarik badago, ez dituzu berriz egin beharko.

Beste aukera da aldi berean egitea ikasketa desberdinak. Hurrengo galderan azaltzen dugu nola.

Nola egiten dira ikasketa desberdinak aldi berean?

Hainbat baldintza bete behar dituzu ikasketa desberdinak aldi berean egiteko unibertsitate berean. Lehenik eta behin, gaindituta izan behar duzu hasitako ikasketen lehen maila osoa (plan zaharretan) edo 60 kreditu gaur egungo ikasketa-planetan. Horrez gain, plazak egon beharko dira bigarren titulazioan matrikula egiteko epeak behin amaituta (LBZIGA, 20. artikulua). Ikasketa desberdinak aldi berean egiteko asmoa baduzu datorren ikasturtean, Ikasleen Kontseilukook gomendatzen dizugu galdetzeko ikastegian noiz eta nola egin behar duzun. Datak, oro har, irailaren hasieran izan ohi dira.

MATRIKULA

Euskal Herriko Unibertsitateak urtero ezartzen ditu ikasleek matrikula egiteko data. Data hau faktore askoren arabera izan ohi da. Data LBZIGA delakoan daude ezarrita 30. artikulutik 32. artikulura. Araudi bereko 33. artikulua ezartzen ditu baldintzak.

Zer nolako informazioa eman behar dit ikastegiak matrikula egin baino lehenago?

Lizentziaturako irakasgaiei buruzko informazioa eman behar dizu ikastegiak, hau da, helburuak, programa, irakasgaia emango duten irakasleen izenak, irakasgaiari lotutako bestelako jarduerak, ebaluatzeko sistema eta azterketen aldia (LBZIGA, 41,2 artikulua).

LURGORRIN ikasturte hasieratik izango ditugu eskuragarri ebaluazio sistema guztiak. Edonolako zalantzarik baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan eta informazioa helaraziko dizugu.

Nola ordain dezaket matrikula?

Matrikula egiteko unean esango zaizu zenbat ordaindu behar duzun (LBZIGA, 36,3 artikulua). Bi modu dauzkazu matrikula ordaintzeko: banku-helbideratzearen bidez edo ordainagiri pertsonalizatuaren bidez (agiria matrikula egiterakoan ematen da). Bi kasuetan dago matrikula epeka ordaintzeko aukera (LBZIGA, 36,4 artikulua).

Matrikula egiteko unean oraindik ez badakizu beka izango duzun ala ez, unibertsitateak ez dizu kobratuko matrikula bekaren ebazpena jakin arte. Ez badizute ematen beka, ez duzu izango matrikula epeka ordaintzeko aukerarik. Ez duzu izango ezta ere aukera hori matrikula zabaltzea erabakitzen baduzu. Beraz, epe bakarrean ordaindu beharko duzu.

Nortzuek daukate matrikularen prezioa murrizteko edo ez ordaintzeko eskubidea?

Honako hauek ez dute ordaindu behar matrikula, %100eko salbuespena daukatelako: ekintza terroristen biktimak, eta euren ezkontide eta seme-alabak; genero-indarkeriaren biktimak, eta euren seme-alabak; %33ko ezintasun-maila edo handiagoa daukatena; eta %65eko ezintasuna duen kideren bat daukatena familian.

Bi seme-alaba dauzkaten guraso bakarreko familiek eta familia ugariak murriztuta daukate matrikularen prezioa eta %50 ordaindu behar dute.

Aipatutako guztiak bete egin behar dituzte 2009ko ekainaren 23ko aginduan zehaztutako baldintzak (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren agindua, 2009-2010 ikasturtean unibertsitateko ikasketa-zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezioak finkatzen dituen).

Zer egin behar dut matrikula zabaldu eta irakasgai gehiago hartzeko?

Matrikula zabaltzeko eskaera ikastegiko idazkaritzan aurkeztu behar da, eta bigarren lauhilekorako baino ezin da egin. Ikastegiak ez daude derrigortuta aukera hori eskaintzera. Ikastegiko batzarrak onartu behar ditu irakasgaiak eta epeak, eta epe horren barruan aurkeztu behar da eskaera. Baina, betiere, otsailaren 26a baino lehen (LBZIGA, 39 artikulua).

Matrikula baliogabetu nahi dut. Zer egin behar dut?

Matrikula baliogabetzeko epea abenduaren 31n bukatzen da. Egun horretatik aurrera unibertsitateak ez du onartuko matrikula baliogabetzeko eskaerarik, salbuespeneko kasuetan izan ezik. Ordaindutako diru-kopurua ez da inolaz ere itzuliko (LBZIGA, 37,1 eta 37,5 artikulua).

Unibertsitateak berak bere kabuz baliogabetuko du matrikula, baldin eta ikasleak ez badu betetzen matrikula egiteko zehaztutako baldintzaren bat edo ez badu ordaindu matrikula zehaztutako epeen barruan (LBZIGA, 37,3 artikulua; iraute-arauak, 5,3 artikulua).

Uste baduzu irakasgairen bat hartu duzula matrikulan administrazioak ondo jardun ez duelako, Ikasleen Kontseiluak gomendatzen dizu matrikula balio gabetzeko eta ordaindutako diru-kopurua itzultzea eskatzeko.

Ohorezko matrikula atera dut. Diru itzuli behar didate?

UPV/EHUko irakasgairen baten ohorezko matrikula atera baduzu, arautegiak dio unibertsitateak kasuan kasuko murrizketa aplikatu behar dizula ikasketa berberen hurrengo matrikulan (LBZIGA, 38 artikulua).

IKASTURTE BARRUAN

Derrigorrezkoa da bertaratzea?

EZ. Euskal Legeriak ezartzen du ikasleek “gelara ez joateko” duten eskubidea. (Euskal Unibertsitate Sistemaren Legearen 41.J artikulua)

Zer irizpide erabili dute nire gelako taldean sartzeko?

Hainbat irizpide daude ikasleak talde zehatz batean sartzeko ikasturtean bat baino gehiago badago. Alfabetikoki, modu aleatorioan edo ikaslearen aukerakoa izan daiteke. Irizpidea Zentroko Batzordeak onartu beharko du matrikula egiten hasi baino lehenago. (LBZIGA, 29 artikulua).

Taldez aldatu nahi dut. Noiz eta nola eskatu behar dut?

Behin talde batean sartuta zaudenean, talde zehatz batean sartzea eska dezakezu. Eskari hori zentroko idazkaritzan aurkeztu beharko duzu ezarrita dagoen epe barruan. Erantzuna aldez aurretik argitaratu diren irizpideetan egongo da oinarrituta (LBZIGA, 41,4 artikulua).

Irakasleek gure datuekin betetzeko fitxa eman didate, beharrezkoa al da?

EZ. Fitxa hauek borondatezko izaera dute eta ikasleak identifikatzeko beharrezko datuak baino ez dituzte izango. (LBZIGA, 45,7 artikulua).

Irakasgaiari buruzko zalantzak ditut. Zer egin behar dut?

Ikasgairen baten gaineko zalantzak badituzu ardura duen irakasleak tutoretza orduak eskaini beharko ditu kasu horietarako. Ordutegi hauek ikasturte hasieran egongo dira prest. (Euskal Unibertsitate Sistemako Legearen 4 artikulua)

Zenbat tutoretza ordu daude? Non egongo dira argitaratuta?

Irakasleek, oro har, sei ordu eman behar dituzte astean tutoretza-zereginetan. Hala ere, kasu batzuetan, irakasleek tutoretza-ordu gutxiago dituzte. (Irakasle-gidaren 2.1 atala)

Tutoretza orduak lauhileko bakoitzeko lehen 15 egunetan egongo dira argitaratuta Zentroko iragarki taulan eta lauhileko osoan egongo dira ikusgai. Edonolako aldaketa hiru lan egun aurretik iragarri beharko (LBZIGA, 42,3 artikulua). Informazio hau irakasleak ematen du ikasturte hasieran bere telefono eta e helbidearekin batera.

Ezin naiz joan irakasleak jarritako ordutegian. Zer egin behar dut?

Irakasleek, normalean, ez dute jartzen eragozpenik ordutegia aldatzeko. Beraz, ezin bazara joan irakasleak jarritako ordutegian, hitz egin berarekin zuzenean eta geratu beste ordu batzuetan joateko.

Irakasleak egun batzuk daramatza eskolarik emateke. Zer egin behar dut?

Halakoetan jakinaren gainean jarri behar da irakaslearen saileko zuzendaria. Ikasleen ordezkariak eman behar dio egoeraren berri edo, ordezkaria aukeratu ez bada, gelako edozein ikaslek. Kasu honetan departamentuak ordezkari bat izendatu beharko du etortzen ez den bitartean.

Ez agertze horiek arrazoitu gabeak badira, Departamentuak behar besteko neurriak hartuko ditu egoera hori berriro eman ez dadin.

Hori zure gelan gertatzen bada, helarazi zure kexa info@lurgorri.org e-helbidera eta ahal dugun moduan lagunduko dizugu.

Irakasleak lan batzuk proposatu ditu ebaluatzeko, nola proposatu behar ditu?

Lanak ematea hitzartu egin beharko da ikasleekin eta ondo zehaztuta proposamena egiten duen momentuan. Data horiek aldeztu aurretik ezarri beharko dira irakasleak berme guztiz egin ahal izan dezan. (LBZIGA, 51,1 artikulua).

Hainbat lan eman ditut, itzuli behar dizkit?

BAI. Irakaslea derrigortuta dago zuri itzultzerara, nahiz eta horretarako notak eman eta bi hilabete geroago eskatu behar dizkiozun (LBZIGA, 51,2 artikulua).

LURGORRIK gomendatu nahi dizu eskaera hori idatziz egin dezazun zuren Zentroan dagoen Erregistrotik bertatik. Horrela, Unibertsitatean jasota geratuko da zure eskaria, irakasleak ezetzik esaten badu erreklamazioak egiteko ordurako.

Irakasleak gure lana argitaratzea erabaki du, baina guri baimenik eskatzeke. Egin dezake?

BAI. Egiten dituzun lanen argitalpenari begira, zatikakoa edo osorik, BETI derrigorrezkoa izango da egileen baimena hirugarren batek argitaratu ahal izateko. (LBZIGA, 51,2 artikulua). Norbaitek beste inoren lanak eman nahi baditu argitara, osorik zein zatiren bat, egilearen baimena izan behar du BETIERE.

EBALUAKETA SISTEMAK

Noiz ezagutuko ditut irakasleak ebaluatzeko erabiliko dituen irizpideak?

Irakasleak ebaluazio sistemari buruzko informazioa eman beharko du ikasturte hasieran. Hainbat ikasle talde dituen ikasgaiak gai zerrenda eta ebaluazio sistema bakarra izan beharko dute talde guztietarako. (LBZIGA, 45,2 artikulua).

LURGORRIN badakigu hau ez dela beti betetzen eta Erretoretzari eskatu diogu behar besteko neurriak har ditzan araudia betetzeko.

Ebaluazioa nola egiten da? Ahozko azterketa proposatu du. Egin dezake?

Irakasleak, ikasturte hasieran, ondoen deritzon ebaluazio sistema ezar dezake. Ebaluazioa egin ahal izango du azterketa edo lanen bidez, edo biak erabilia. Ebaluaketa etengabea edo finala izan daiteke. (LBZIGA, 45,3 artikulua).

Irakasleak, gainera, azterketa ahozkoa edo idatzia izango den erabakiko du. Ahozko azterketak jendaurrean egin behar dira. Nahi baduzu, irakasleak grabatu egingo du azterketa. Modu horretara, erreklamazioa jartzea erabakiz gero, gordeta egongo da (LBZIGA, 46,1 artikulua). Grabatzea eska dezazun gomendatzen dizugu, notaren inguruko kexak badituzu.

Irakasleak egin ditzake azterketa partzialik?

Bai. Irakasleak azterketa partzialak egingo ditu irakasgaiaren ebaluazio zehatz eta etengabea egiteko, baina jasota egon beharko da ikasturtearen hasieran argitara emango den ebaluazio-sisteman (LBZIGA, 46,2 artikulua).

Edonola ere, beti egon beharko da azken azterketa egiteko aukera ikasgelan emaniko edukien gainean eta honek balio bat izango du notaren portzentajearen (LBZIGA, 45,3 artikulua).

Zer gertatzen da irakasleek behar beste landu ez dituzten gaiekin? Horiek ere ebaluatu egiten dira?

EZ. Araudiak argi uzten du irakasleak ezin dezakeela hori (LBZIGA, 45,5 artikulua), hau gertatzen bada azterketa errepikatzea eska diezaiokezu erreklamazio batzordeari (LBZIGA49,2.e.1 artikulua).

Egoera hau ez da berria. Irakasleak ikasgelan azaldu ez dituen gaien inguruko ebaluazioa egin badu, jar zaitez gurekin harremanetan **info@lurgorri.org** e-helbidean eta erreklamazioa aurkezten lagunduko dizugu.

5. edo 6. deialdian aurkitzen naiz. Zein irizpide erabiliko dute ni ebaluatzeko?

Kasu hauetan ebaluazio sistema ikasgela osorako erabilitako bera izango da. Ezberdintasun bakarra da azterketa horretarako eratu den epaimahaiak zuzenduko duela. Ez bazaude notarekin ados, beste irakasle baten notaren aurrean egin beharreko erreklamazio bera egin beharko duzu. (LBZIGA, 48 artikulua).

Zer da ikasgai baten ebaluazio bateratua?

Hainbat talde dauden ikasgaietan, ebaluazio bateraturako Epaimahaiak eratu ahal izango dira. Hauetan izango dira ikasgai honetako ikasle guztien azterketak zuzentzeko ardura duten hiru irakasle. (LBZIGA, 47,3 eta 47,4 artikulua).

DEIALDIAK

Zenbat deialdi daude?

Sei aukera izango dituzu matrikulan hartutako irakasgai bakoitzean. Horiez gain, graziako deialdia eskatu ahal izango duzu, hau da, azken aukera. (Permanentzia araudiko 2.1 artikulua).

Azterketa kontsulta dezaket eta alde egiten badut, deialdi hori galtzen dut?

Batzuetan entzuten da ikaslea azterketara aurkez daitekeela, kontsultatu eta epe zehatz batean ezin duela egin ikusten badu, joan daitekeela.

Idea hori okerra da. Irakasle batzuek ahalbidetzen dute, baina hori irakaslearen araberakoa da, ez da ikaslearen aukerakoa.

Azterketara ez banoa, deialdia galduko dut?

Ikasturtean ikasgai bakoitzeko bi deialdi dituzu: Baina nahikoa da ez aurkeztea deialdiari uko egiteko eta ez duzu galduko. (Permanentzia araudiko 2.3 eta 2.4 artikulua)

Zer dira 5. eta 6. deialdiak? Zer dira 5. eta 6. deialdiko epaimahaiak?

Bestelako deialdiekin dagoen ezberdintasun bakarra da, honetan azterketa Epaimahai batek zuzenduko duela eta ez ikasgaia ematen duen irakasleak. (Permanentzia araudiko 2.5 artikulua)

Ez bazaude ados emandako notarekin, beste irakasle baten kasuan egiten den erreklamazio bera egin beharko duzu.

Zer da graziako deialdia? Zenbat daude?

Graziako deialdia da unibertsitateak ematen dizun azken aukera irakasgaia gaintzeko. Ziklo bakarreko titulazioetan graziako deialdi bat besterik ez duzu, baina bi ziklotako titulazioetan bi aukera dituzu, ziklo bakoitzean bat (LBZIGA, 80 artikulua; iraute-arauak, 2,2 artikulua).

Deialdi guztiak agortu ditut. Zer gertatzen da orain?

Iraute-arauek diotenez, irakasgai bateko deialdi guztiak agortu ondoren, ezin izango dituzu amaitu unibertsitate honetan egiten ari zaren ikasketak; horretarako, bi ikasturte egon behar zara matrikulatu gabe UPV/EHU (2,6 artikulua). Epe hori igarota, matrikula berriro egiteko eskaera egin behar diozu dekanuari eta, eskaria onartuz gero, sei deialdi izango dituzu berriro (2,7 artikulua).

Hori gertatu baino lehen, irakasgaia ebaluazio bereziaren bitartez gainditzeko aukera daukazu, baina baldintza batzuk bete behar dira (LBZIGA, 58 artikulua).

Zer dira ezohiko deialdiak?

Ezohiko deialdien bidez azterketak aurreratzeko aukera daukate ikasketak amaitzean dauden ikasleak. Unibertsitateak ezarritako baldintzak bete behar dituzte horretarako.

AZTERKETA EGUTEGIA

Nork onartzen du azterketen egutegia?

Azterketen egutegia Fakultate Batzarrak onartzen du. Proposamena ikastegiko zuzendaritzak egiten du, sailen eta ikastegiko Ikasleen Kontseiluaren iritzia entzun ondoren. (LBZIGA, 50,1 artikulua).

Zein datu agertu behar dira egutegian?

Egutegian azterketa bakoitza egiteko data, ordua eta ikasgela ageriko dira (LBZIGA, 50,1 artikulua).

Noiz eman behar da argitara?

Unibertsitateko arautegiak dioenez, “egutegia azterketak hasi baino, gutxienez, hilabete bat lehenago argitaratu beharko da”. (LBZIGA, 50,1 artikulua).

LURGORRIK ikasturte osoan eskatu du ikasturte hasieran argitaratzea, ikasleek beren azterketak planifika ditzaten.

Irakasleak azterketa data aldatu nahi du. Galdetu gabe egin dezake?

EZ. Azterketa datak eta ordutegiak irakasleak ezin ditu aldatu modu arbitrarioan. Aldatu ahal izateko, Departamentuak Dekanotzari eskatu beharko dio aldaketa eta arrazoitu beharko du: Dekanotzak Ikasleen Batzordeari eskatu beharko dio eta erantzuna jasota, erabakia hartu. (LBZIGA, 50,1 artikulua).

Zer egin behar dut egun berean azterketa bat baino gehiago badut?

Egoera horretan aurkitzen bazara, ez zaitetz kezkatu, hori aztertzen duen araudia egon badago. Azterketa bat baino gehiago txanda berean badituzu-goizez edo arratsaldez- irakasleari eskatu beharko diozu ikasturte goreneko azterketa data aldatzea azterketa egin baino 15 egun lehenago. (LBZIGA, 50,3 eta 50,5 artikulua).

Hauetako bat aukerakoa da, horren data aldaketa eskatu beharko duzu. (LBZIGA, 50,4 artikulua).

Nire irakaslea ez da azterketan agertu. Zer gertatzen da?

Irakaslea, langilea den aldetik, bere lanpostura joateko derrigortuta dago. Agertzen ez bada, normalena da delegatua Dekanotzara joatea gertatzen dena azaltzera , azken honek egoera konpon dezan.

Gainera, Dekanotzak egoera aztertu beharko du eta egoki bada, behar besteko zigorrek eskatu.

AZTERKETAK

Irakasleak nortasuna egiaztatzea eskatu ahal du?

Bai. Irakasleak ikasleei eskatu ahal die nortasuna egiaztatzea. Ikaslea derrigortuta dago bere nortasuna egiaztatzerako, ikasle txartela, NAN edo bestelako legezko agiriren bidez. (LBZIGA, 45,6 artikulua).

Programan agertzen diren eta irakasleak azaldu ez dituen gaiak galde ditzake azterketan?

Ez. Irakasleak ezin izango dizkizu inoiz galdetu eskola ordutegian azaldu ez dituen gaiak, nahiz eta ikasgai programan agertzen diren. Hau gertatzen bada, azterketa errepikatzeke eskubidea duzu. (LBZIGA, 45,6 artikulua).

Zein kasutan daukat azterketa berriro egiteko eskubidea? (LBZIGA, 49.2.e artikulua)

- Irakasleak landu ez duen gairen bati buruzko galderak egin badira.
- Arrazoi oso bereziak direla-eta ikasleek ezin izan badute azterketa behar den moduan egin.
- Irakasleak venia docendirik ez badu.
- Azterketa egin aurretik ikasleek ezagutzen ez zuten ebaluazio-sistema erabili badu irakasleak.
- Ikastegiko Erreklamazio Batzordeak hala erabakitzen duenean.

Azterketa bat egin dudala egiaztatu behar dut. Nola eskatu egiaztagiria?

Berlaratze egiaztagiria eraman beharko duzu irakasleak zina dezan. Egiaztagiri hau Zentroko Idazkaritzan eskatu ahal izango duzu.

Gomendatzen dizugu egiaztagiri hauek eska ditzazun, azterketa galtzen denean ikasleak egiaztatu ahal izango dualako azterketan egon dela. LURGORRIK eskatuko du irakasleak eraman ditzan egiaztagiri hauek gauzak errazago egiteko.

KALIFIKAZIOAK ARGITARATZEA

Zenbat egun dauzkate irakasleek notak argitaratzeko? Eta hala egiten ez badute?

Irakasleek 20 eguneko epea izango dute azterketa partzialen eta finalen kalifikazioak argitaratzeko, azterketak egiten diren egunetik kontatzen hasita. Irakasleak ez baditu notak epe barruan ematen, asignatura bereko hurrengo azterketa eguna baino 7 egun lehenago eman ditzake(LBZIGA, 47,1 artikulua).

LURGORRlren iritziz, irakasleak ez baditu notak eman ondorengo 20 egunetan, onena da berarekin hitz egitea. Ez badu kasurik egiten gurekin jar zaitez harremanetan info@lurgorri.org e-helbidean eta lagunduko dizugu. Dekanoari zuzendutako kexa idatzi eta erregistratua ere aurkez dezakezu eta gertatu dena azaldu. Aukera hau, azken errekurtsua litzateke.

Zer gertatzen da irakasleak ez baditu notak esandako epean sinatzen? Ze onorio ditu? Zer egin behar dut?

Kasu honetan gomendatzen dizugu gurekin harremanetan jar zaitezen honen berri eman diezaiogun eskumena duen erakundeari. Behar besteko neurriak hartzea eskatuko dugu irakasleak bere lana bete dezan. (LBZIGA, 47,1.c artikulua).

Notak argitaratzean, nire izena eta nota agertu dira. Hori egin daiteke?

Araudiak irakasleari ezartzen dio notak NAN zenbakiarekin eta notarekin argitaratu behar dituela. Argi eta garbi eman beharko da argitaratze data errebisioak egiteko eskariak aurkezteko epeari begira. (LBZIGA, 47,1 artikulua).

Halaber, azterketa berrikusteko data eta ordua ere eman beharko da. Data hau izango da bi eta zortzi lan egun bitartekoa. (LBZIGA, 49,2 artikulua).

LURGORRlren ustez gai hau oso garrantzitsua da. Gure ustez Unibertsitateak ikasleen datuak ondo gorde behar ditu.

Baliabide informatikoak erabili behar dituzte notak argitaratzeko?

Bai. Irakasleak G.A.U.R. delakoa erabili beharko du bere ikasleen notak argitaratzeko. Horrek ez du esan nahi betiko bitartekoen bidez argitaratzerik ez duenik. (LBZIGA, 47,1 artikulua).

NOTAK ERREKLAMATZEKO PROZEDURA

Irakaslea okertu egin da notak argitaratzeko orduan. Zer egingo dut?

Irakaslearengana jo beharko duzu errakuntzaz ohartu dadin eta ikasgaiko aktak zuzen ditzan (LBZIGA, 47,1.b artikulua).

Ez nago notarekin ados. Erreklamazioa aurkez dezaket?

Bai. Notak behin betikoak eta ofizialak izan baino lehen, irakasleak GAUR delakoan argitaratu beharko ditu: Ez bazaude horiekin ados, notak argitaratzen dituenean, irakasleak data eta ordua eman beharko du azterketa berrikusi ahal izateko. (LBZIGA, 49,2.a artikulua).Berrikuseta epea amaituta, irakasleak aktak sinatuko ditu.

Berrikuseta egiteko datan eskolak, osagile kontsulta... ditut. Eskubidea galtzen dut?

EZ. Kasu honetan, irakaslearengana jo beharko duzu azterketa berrikusteko data berria adosteko berrikusketarako ezarri diren epe barruan (LBZIGA, 49,2 artikulua).

Irakasleak ez du bere iritzia aldatu eta ez nago notarekin ados. Azterketa berrikustea eska dezaket? Nork berrikusten du?

Ez badaude emaitzekin ados, ikasleak idatziz aurkeztu ahal dio departamentuko zuzendariari bere erreklamazioa. Aktak argitaratu direnetik 5 aste-guneko epean. (LBZIGA, 49,2.b artikulua)

Berrikusketa Erreklamazio Epaimahaiak egingo du , horretan egongo direlarik hiru irakasle eta lkasleen Batzordeak aukeratutako ikasle bat (LBZIGA, 49,1 artikulua).Batzorde honek erreklamazioa aztertu beharko du irakaslearen txostena irakurrita eta behin zuk esan behar duzuna entzunda. Ebazpena arrazoitu beharko du aurkeztu den egunetik 8 eguneko epean. (LBZIGA,49,2.b artikulua).

Oraindik ere ez nago ados. Zer egingo dut?

Kasu honetan, bost eguneko epean, idazkia bidali beharko zaio zentroko dekanori azterketa berriro ikustea eskatuz. Erantzuna gehienez eman beharko da 10 eguneko epean eta zentroko zuzendaritzak izendatutako batzordeak eman beharko du. (LBZIGA, 49,2 artikulua).

Bere erantzuna ez baduzu gogoko, azken aukera izango zenuke Epaimahaietara joan baino lehen eta aurreko kasuetan bezala, Errektorearen aurrean azterketa berrikustea eskatu baino lehen. (LBZIGA, 49,2.d artikulua).

Fidagarriak al dira azterketak berrikusteko batzorde horiek?

Departamentuko Erreklamazio Batzordea osatzen dute departamentu bereko irakasleek. Honek nolabaiteko beldurra eragin dezake irakasle horiek ez ote direla objektiboak, erreklamazioa egin dugun irakaslearen “lankideak” direlako. Baina, garrantzizkoa da ikasleria ordezkatzeko duena modu arduratsuan jardutea.

Hala ere pentsatzen baduzu Batzorde hori ez dela objektiboa izango, gure gomendioa da kexa aurkeztea eta horretan zure zalantzak argudiatzea Batzordeko kide baten objetibotasunik ezaren inguruan. Horrekin batera eska dezakezu kide hori aldatzea.

Dekanoari zuzendutako idazkiaren ostean biltzen den Batzordeari dagokionez, honetako kideek ez dute derrigorrez izan behar Departamentuko

kideak, hortaz fidagarritasun maila handiagoa izan dezakete. Horretan ere ikasleak egiteko garrantzitsua du bere ikaskideen defentsa egiterakoan. LURGORRIko kide batzuk horrelako Batzorderen batean daude eta uste dugu irakasleak saiatzin direla modu objektiboan jokatzin, ikusi baitute ikasleek ordezkariek ondo ezagutzen dutela araudia.

Erreklamatu dudan irakasleak beste ikasgaia emango dit eta errepresalien beldur naiz. Zer egin dezaket?

Hau gertatzen bada, Departamentuko Zuzendaritzari eskatu ahal diozu irakasle hori ez dadin izan zu ebaluatuko zaituena eta hori pentsatzeko duzun arrazoia eman behar duzu.

Dena dela, jar zaituz gurekin harremanetan **info@lurgorri.org** e-helbidean eta guri azaldu zure arazoa. Lagunduko dizugu azaltzen nola aurkeztu behar duzun kexa hori, beti ere unibertsitateko araudiari jarraituz. Jakin badakigu ez dela bat ere erraza urrats hori ematea baina ziur bazaude irakaslea ez dela objektiboa izango, animatu eta eskatu departamentuko beste batek ebalua zaitzala.

KONPENTSASIO EBALUAKETA

Zer da konpentsazio ebaluaketa?

Ikasgai batekin konpentsazio ebaluaketa egiteak suposatzen du ikasgai gaitzitzea azken azterketa egin barik, beti ere, ondoren azalduko baldintzak betetzen badira.

Baina, Nork egingo dit konpentsazio ebaluaketa?

Gaur egun, Konpentsazio epaimahaiaren bi maila daude: bat da zure ikastegia eta bestea Unibertsitate osorako.

Konpentsazio epaimahaia arlo ezberdinetako sei irakaslek osatzen dute eta hauek ikastegiko batzordeak izendatzen ditu. Gainera, bilera hauetara joan daiteke ikastegiko ikasleen kontseiluak izendatutako ikasle bat. Ahotsa izango du, baina ez botoa (LBZIGA, 56,2 artikulua).

Beste epaimahai bat dago unibertsitatean eta Errektoregoaren mende. Hara joan beharko da Ikastegiko epaimahaiaren ebazpenarekin ez badaude ados. (LBZIGA, 56,4 artikulua).

Zer baldintza bete behar dut?

Konpentsaziozko ebaluazioa eskatu ahal izango duzu, natrikulatuta bazau-de, ikasgaiak deialdiak ez badituzu agortu, bestelako baldintzez gain.

Ikasgai metodo honen bidez gaitzeko asmoa baduzu, araudiari begiratzea edo guri galdetzea gomendatzen dizugu (LBZIGA, artikulua 56etik 61era).

Zer ondorio dago mire espedienterako, horrela gaitzekin badut?

Araudiaren arabera, konpentsazioz gaitzekin suposatzen du nahiko batez gaitzekin, hau da espedientearen baremaziorako leko balioa izango du. Horretatik aparte, inguruabar hori zure espedientearen erregistratuta geratuko da (LBZIGA, 61 artikulua).

MUGIKORTASUNERAKO PROGRAMAK

Zertako dira mugikortasunerako programak?

UPV/EHUK, mugikortasunerako programen bitartez, honako hauek egiteko aukera ematen dizu zure ikasketen zati bat beste unibertsitate batean egin eta egindako ikasketak aitortzea. Gainera, Espainiako, Europako Latinoamerikako eta munduko beste toki batzuetako unibertsitateetan aparteko espezializazioa bizitzea ahal izango duzu.

Zein programa existitzen dira gaur egun?

ESPAINIA: SICUE programa

EUROPA: ERASMUS IKASKETAK eta ERASMUS PRAKTIKAK programa

LATINOAMERIKA: LATINOAMERIKA Programa (UPV/EHU-AL)

ESTATU BATUAK, ERRUSIA, KANADA, ZEELANDA BERRIA ETA ASIA: "BESTE NORAKO BATZUK " Programa

Zer egin behar dut programa hauetan parte hartzeko?

Gure MUGIKORTASUN-PROGRAMETAN izena emateko, egin behar duzun bakarra honakoa da:

- 1.) UPV/EHUn edo atxikitako ikastegi batean matrikulatuta egotea.
- 2.) Mugikortasuna (ikasketa-trukea) egiten den momentuan gutxienez ikasketen lehen urtea gaintuta izatea.
- 3.) Zure ikastegiak ezarritako baldintzak betetzea: zeintzuk diren jakiteko, jarri harremanetan zure ikastegiko Nazioarteko Harremanetarako koordinatzailearekin.

Gastu hauei aurre egiteko inolako laguntasunik dago?

Bai. Hainbat instituzioek (Hezkuntza Ministerioa, Eusko Jaurlaritza) ikasteko bekak eskaintzen dira kasu hauetarako. Informazio gehiago eskuratzeko, joan zaitez Unibertsitateko Beken Negoziatzura.

BEKAK ETA LAGUNTZAK

Beken Bulegoak aztertzen ditu beketarako egindako eskaerak eta, era berean, beka emateko edo ukatzeko proposamena egiten du, baldintzak betetzen diren egiaztatu ondoren. Bulego horretan honako beka gestionatzen dira: (www.ikasleak.ehu.es)

- Eusko Jaurlaritzak ikasketetarako deitutako beka eta laguntza orokorrak.
- Mugikortasun beka orokorrak.
- Lankidetzak beka.
- “Giza Zientziak” unibertsitate titulura zuzendutako ikasketetarako laguntza (Esperientzi Gelak).
- Master ofizialen beka.
- Garraio-beka.
- Ikasle ezgaituentzako beka.